



PLACENTIA-PLENTZIA SENIDETZE BATZORDEAREN BILERA PLENTZIA HIRIBILDUAREN UDALETXEKO ERLOJU ARETOAN, 2017ko ABUZTUAREN 17an

Arratsaldeko 17:00etan, Batzordeko kide hauek bildu dira: David Crestelo Dominguez jn., Plentziako alkatea; Zutoia Azurmendi Gil and., Turismo zinegotzia; Nieves San Sebastian Larrazabal and., Eusko Alderdi Jeltzalea udal taldeko zinegotzia (18:15 aldera atera da bileratik: “Joan egin behar izan nuen lan arrazoiengatik. Bilera adierazitako egunean egin izan balitz -eta ez zen hala egin alkatea ez zegoelako- ez nuen alde egin beharrik izango”); Keltse Macias Zarraga and., Plentziako Independenteak udal taldekoa (18:00ak aldera sartu zen bileran: “aurreko egunean, bileraren data ofizialean –egin ez zen arren-, esan nuen ezin izango nuela etorri 18:30ak arte”); Arantxa Renteria Bilbao and., Butroeko Placentia Museoko presidentea eta Sabino Laucirica Villalabeitia jn., Placentia eta Plentzia hirien arteko harremanaren ikerlaria. Halaber bilerara etorri dira Isabel Findlay Uriarte andrea eta bere seme Mikel, Gorlizen bizi diren kanadarrak.

Aimar Arizmendi jaunari posta elektronikoz jakinarazi zitzaion noiz izango zen bilera eta zein izango zen gai-ordena.

Alkate jaunak hasiera eman dio saioari eta barkamena eskatu du deialdian egindako akatsagatik. Bilera bezperan egitekoa zen, baina bere huts egite bat dela-medio (gaizki kudeatu baitzuen agenda) gaurko egunera aldatu behar izan da hitzordua.

Gero, abuztuaren 8an posta elektronikoz bidalitako gai-ordenari ekin zaio:

1. SENIDETZEARI BURUZKO ATALA UDALAREN WEB ORRIAN: alkate jaunak esan du Biscaytik Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko erakundeak, kudeatzen duela Udalaren web orria eta asmoa dela web orrian bertan atal berezi bat sortzea Senidetzeari buruz. Dagoeneko hitz egin da Fundazioko arduradunekin, azaldu zaie nola sortu nahi dugun aipatu atala eta Udalak eta Fundazioak hitzordu bat jarri dugu irailerako (data zehaztu gabe).

Webeko leiho berriaren atalak ez daude zehaztuta, baina aipatu dira batzuk: historia komuna, Senidetzearen kontakizuna, prentsa, dokumentazioa...



AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

Alkateak konpromisoa hartu du azpi-webaren eskema bat prestatzeko.

2. PLACENTIA HIRIRA EGINIKO BIDAIARI BURUZKO HITZALDI INFORMATZAILEA(K): Silvia eta Arantxa Renteria andreak proposatu dute ideia. Asmoa da hainbat hitzaldi eskaintzea (institutuan eta Goñi Portalen, adibidez) Placentia hirira eginiko bidaia kontatzeko.

Isabel andreak proposatu du Kanada osoa eman litekeela ezagutzera.

Alkateak konpromisoa hartu du institutuari ekimen horren berri emateko.

3. IDAZKI INFORMATZAILE BAT EGITEA SENIDETZEARI BURUZ, PLENTZIAKO ETXE GUZTIETARA BIDALTZEKO.

Laucirica jaunak aurrerago esango duen bezala, helburua da Senidetzea ezagutzera ematea eta "pedagogia egitea".

Alkateak konpromisoa hartu du idazkiaren zirriborro bat prestatzeko.

4. SABINO LAUCIRICA JAUNAREN DOKUMENTUA ARGITARATZEA: LAUCIRICA jaunak bere burua aurkeztu du eta azaldu du nola hasi zen Placentia hiriko Lions Clubera idazten eta gero Hogan alkate ohiari, harik eta Heritage Award Saria (ondarea babesteagatik saria) eman zioten arte. Adierazi du ia ez zutela onartzen beren iragan euskalduna, eta hori asko aldatu dela orain.

Argitalpenari dagokionez, Crestelo jaunak esan du zuzenketa profesional bat behar duela, Macias andreak dagoeneko enkargatu duela zuzenketa hori, eta zain daudela.

Laucirica jaunak esan du zuzendu egin beharko litzatekeela hasierako testua eta senidetzearen atala erantsi. Kapitulu hori bidaltzeko konpromisoa hartu du.

5. BI HERRIALDEETAKO IKASLEEN ARTEKO ELKARTRUKEA: alkateak esan du Senidetzeak egiten diren guztietan mahaigaineratzen dela gai hau,



AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

eta proiektuaren hasieratik izan dutela asmoa ikasleen arteko elkartruke bat egiteko. Alkateak berak hitz egin zuen Institutuko irakasle batekin, eta hark konpromisoa hartu zuen ikastetxean gai hau aztertzeko.

Elkartrukearen iraupenaz mintzatu dira, eta baita ere Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin hitz egin beharko litzatekeen ala ez...

Laucirica jaunak esan du beharrezkoa izango litzatekeela ikasleek lehiaketaren batean parte hartzea (idazlan bat egitea, adibidez), Senidetze prozesuan gehiago inplikatzeko.

6. HEMEN LANDATZEA ASTIGAR GORRI BATEN (EDO TERNUA IRUDIKATZEN DUEN BESTE ZUHATZEN BATEN) ALDAXKA BAT ETA HAN, BERRIZ, GURE GERNIKAKO HARITZARENA: Crestelo jaunak aipatu du eman diola asmo horren berri D. W. Power-i, galdetu diola zein den Ternuako zuhaitz tipikoena eta ba ote legokeen truke hori egiteko aukerarik. Oraingo ez dago erantzunik.

Adierazi da agian zailtasun burokratikoak egon daitezkeela zuhaitz espezieak trukatzeko. Orobat esan da ezen, trukea egiten bada, Antonio de la Cuesta Plazako Gernikako Arbolaren parean landatu litekeela.

7. HIRIBILDUKO SARRERETAKO SEINALITIKA. BABESA EMATEA AIMARREN IDEIARI, HOTS, EUSKALDUNEK HAN IZANDAKO HISTORIARI BURUZKO IBILBIDE TURISTIKO BAT EGITEA UHARTEAN (AUKERA EGON LITEKE BI UDALERRIETAN ESKULTURA BERDIN BAT JARTZEKO): Crestelo jaunak esan du begira ibili dela, jakiteko nolakoa izan behar lukeen seinaleak eta ba ote dagoen horri buruzko gomendio edo irizpiderik, baina ez duela ezer aurkitu.

Keltse Macias andreak Placentia sarreran dagoen seinalea aipatu du, laukizuzen baten itxura eta goialdean uztai forma duena.

Alkateak konpromisoa hartu du seinaleen zirriborroak eskatzeko.



AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

8. UDALETXEAN BERTAN INFORMAZIO PUNTU BAT SORTZEA BI UDALERRIEN ARTEKO HARREMANARI BURUZ: alkateak esan du espazio bat sortu behar dela Udaletxean bertan Senidetzearekin lotutako objektuak (tapiza, koadroak, gutunak) kokatzeko. Orobat esan du banderen oinarriak eta mastak egokitu behar direla, gaur egun desberdinak direlako.

Alkateak konpromisoa hartu du materialaren inbentarioa egiteko.

9. TOPAKETA BAT ANTOLATZEA BIZKAIAN / EUSKAL HERRIAN BIZI DIREN KANADARREKIN: alkateak esan du Findlay familiarekin elkartu zenean sortu zela ideia. Aipatu da Enbaxadari eska dakiokoela Bizkaian erroldatutako kanadarren zerrenda, haiekin harremanetan jartzeko, eta egun hori antolatuko balitz, ekitaldi-egitarau txiki bat prestatu beharko litzatekeela.

Findlay andrea eta alkate jauna harremanetan jarriko dira Kanadako Enbaxadarekin, zerrenda eskatzeko eta ideiarekin berri emateko.

10. PASAIAN (ALBAOLA) ERAIKITZEN ARI DIREN SAN JUAN BALEA-ONTZIKO PIEZAREN BAT EROSTEKO AUKERA. PIEZAK PLENTZIAREN IZENA IZANGO LUKE: badira pieza batzuk 50 €tik aurrera, asmoa ez baita diru asko gastatzea, baizik eta proiektua babestea pieza txiki bat erosiz eta pieza horrek Plentziaren izena izango luke.

Azurmendi andreak eta alkate jaunak horri buruz hitz egin zuten Albaolako arduradunekin maiatzean Pasaian izan zirenean, Pasaiaren eta Red Bay hiriaren arteko senidetzearen kariatara.

Alkateak konpromisoa hartu du Albaolari (Enara Novillo andreari) kontsulta egiteko eta aukera guztiak aztertzeko.

11. PLENTZIAKO TURISMO BULEGOAN ATAL INFORMATZAILE ESPEZIFIKO BAT JARTZEA ETA HARA BIDAIATZEKO INFORMAZIOA ERE ESKAINTZEA: aipatu da komenigarria litzatekeela Bulegoko arduradunak informazio hori izatea. Landuko da kontu hori sakonago.



AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

12.MUSEOARI LAGUNTZEA PLACENTIA ETA PLENTZIA UDALERRIEN IRAGAN KOMUNARI BURUZKO GAJETAN: alkate jaunak esan du Museoak baduela horri buruzko erakusmahai bat eta badaudela Ternua eta Labradorreko aztarnategietan aurkitutako teila zatiak, Laucirica jaunari esker handik bidaliak. Arantxa Renteria andreak esan du erakusketaren tamaina ez dela ia aldatu, eta badutela bidaiatik ekarritako pieza berriren bat.

13.BESTE PROPOSAMEN BATZUK

- Keltse Macias andreak aipatu du material truke bat antolatu daitekeela bi udalerrietako institutuen artean, zehazki, Plentziako ikasleek eginiko idazkiak, eta Placentiako ikasleek eginiko koadro eta idazkiak. Esan du hitz egin duela honi buruz Plentziako Institutuko zuzendariarekin eta alkateak esan du berriro galdetuko diola, aukerak aztertzeko.

- Araldi Kultur Elkarteko Margo Tailer-Eskolako kide batek aurkeztu zuen proposamena (2017ko abuztuaren 11n sartu zen Udaletxeko erregistroan, 3311 zenbakiarekin): “asmoa da ikasturte hasieran, urrian, talde bat antolatzea eta irakaslearen laguntzarekin hainbat oihal margotzea Placentia hiria gaitzat hartuta, gero hara bidaltzeko eta kultur arlo horretan geure burua ezagutarazteko...”. Macias andreak galdetu du proposamena Elkarte horretara mugatuko ote den edo irekia izango den parte hartu nahi duen edonorentzat. Erantzun zaio ekimena Elkarte horretako kide batek bultzatu duenez, hasierako proposamenari egin nahi zaion aldaketa oro berarekin hitz egin eta adostu beharko litzatekeela.

Alkateak konpromisoa hartu du berarekin hitz egiteko eta bilera bat proposatuko die, proposamena eta bere bideragarritasuna aztertzeko.

-Findlay andreak esan du Espainiak Ottawan duen enbaxadako ordezkaria Barrikakoa edo Erriberakoa (Plentzia) dela. Datu hori aztertzea eta berarekin harremanetan jartzea adostu da.

-Aipatu da Turismo Bulegoak bidaia bat antolatu dezakeela Albaolara (Pasaia). Turismo teknikariari eskatuko zaio bildu dezala behar den informazioa.

-Aipatu da Pasaiara (Red Bay hiriko ordezkariarekin) eta Astigarragara (“Euskal balea arrantzaleen aztarnen atzetik” itsas-bidaiarekin lotutako prentsaurrekoa) egindako bisitaren ondoren, ideia bat sortu zela Kanadako ekialdeko

PLENTZIA'KO URI-UDALA



AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

kostaldearekin lotutako Euskal Udalerrien Sarea sortzeko (Hendaia, Baiona, Donostia, Pasaia, Astigarraga, Plentzia). Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetako arduradunei eman zaie ideia horren berri. Berriro ere landuko da gai hori.

-Laucirica jaunak galdetu du Senidetzearekin lotutako gai hauek Osoko Bilkuraren saioetara eraman behar ote diren, Udaletxean ordezkaritza duten talde politiko guztien babesa lortzeko. Crestelo jaunak ezetz erantzun dio, batzarretan emango dela Batzordeak egindako lanaren berri. Salbuespen gisa, baliteke gairen bat eraman behar izatea (adibidez, gastuekin lotutakoak). Baita ere esan du talde guztiek dutela ordezkaritza Batzorde honetan, eta bertan libreki eztabaidatu eta adostu daitezkeela gai guztiak.